

JULIAN ALUSTIZA “Aztiri”

Sermolaria, ikertzailea, idazlea, kontalaria eta... olerkaria

Arantzazuko fraidea dugu gure gizona, eta askoren-
tzat Aita Julian Alustiza. Gabiriako Aztiria auzoan jaio
zen 1913an. Auzoaren izena erabili izan du, erabili ere,
bere idazkietako gehienak sinatzeko: ‘Aztiri’.

Laurogehita hamar urte beteak ditu; azken ia berro-
geita hamar urteok –1955etik hona– Arantzazun dara-
matza bizitzen, tartean Zarautzen emandako bi urteak
kenduta (1958-60). Gazte-gaztetan, eta Espiniako Gerra
zibilaren bezperetan Arantzazun apaiztu ondoren
(1936ko uztailaren 12an), Gaztelan eman zituen lehen
sei urteak (Burgos, Soria eta Valladolid), eta ondoren-
goak Erriberrin (1943-1949), Bilbon (1949-1952) eta To-
losan (1952-1955), berriro Arantzazura itzuli arte.

Mendian jaioa, hirian ere bizi eta jardun izan zen, eta
Gaztelako eta Nafarroako lautada zabalak ere gogoz
maite eta kantatu izan ditu –baditu lau olerki “Gaz-
telerrriari” eskainiak, eta Nafarroako Erriberari beste bat–.
Hainbat urtetan Arantzazuri atxikia, mendia izan du Ju-
lianek bereziki maite: mendian ibiltzea, horren sekretu-
ak miatzea eta horren doinuak entzutea... Mendia go-
zatzea! Baina ez da izan mendira begira geratzekoa.

Arantzazu menditik jaitsi izan da urte luzetan eta maiz ibarretako herrietara, prediku eta misio-lanetan.

Adierazgarriak dira 1958ko abuztuko 20ko Arantzazuko Kronikak emandako datuak. Laudorio handiz eta esker onez agurtu zuen A. Julian Alustiza, hiru urte bertan emanak zituena eta, Zarauzko komentuko goardiano izendatuta, alde egin behar zuena: "Durante su estancia aquí se ha dedicado de modo especial al apostolado de la palabra con mucha aceptación del público". Eta haren prediku guztien berri jasotzerik ez duela ohar-tarazi ondoren, hiru urtetako laburpena dakar: "Como índice de su predicación, he aquí el resumen –incompleto–: 13 triduos, 12 novenarios, 13 misiones, 22 ejercicios, y 240 sermones sueltos, 2 quinaris".

Bizi izan den herri eta inguru zabaletan ezagutu dute, ezagutu, jendeek Aita Julian Alustiza, sermolari eta misiolaria, ahots sakon eta lasaikoa. Haren oratoriak udazkeneko euri epel sarkorraren antz handiagoa du, udako bero galda ondoko euri-jasa erasokorrarena baino. Besso-gorputzen eragin efektistan eta hitz-zaparrada oldartsu eta hautsian ez, baina ahoskeraren sakonean eta elejario sendo eta eutsian ipini izan du hark batez ere bere oratoriaren indarra.

"Hizlari dotorea" definitu izan dute Julian, literatur baliabideez –metaforez, hitz-jokoez, aforismoz, atsotitzez– bere hizkera jantzi eta edertzea maite duena. Tartean sartu ohi dituen ipuin, pasadizo, konparazio eta parablek errazago eta erakargarriago bihurtu izan dute haren prediku-solas landua. Gainera maiz ekarri ohi dituen olerkari ezagunen aipuek aire poetiko eta estetiko berezia ematen diete haren hitzaldiei. Arantzazun bertan hara hurbildu izan direnek eta Euskal Herriko herri askok, bereziki Nafarroa mendialdekoek, "Aran-

tzazuko sermolari” ezagutu dute Julian Alustiza urte askotan. Berak egin zuen 1956an Euskaltzaindiak Arantzazun antolaturiko Euskaltzaleen Biltzarraren azken eguneko mezako sermoia¹. Euskaraz ezezik gaztelaniaz ere predikari erakargarria izan da Julian Alustiza.

Herrietako ibilaldietan hurbildik ezagutu ahal izan ditu herritarren kezka eta minak; eta horiek jaso eta erabili izan ditu sarritan bere aldizkaritako idatzietan.

“Hitz-jario ederreko sermolari oparoa eta euskara aberatseko idazle dotorea” aurkitzen du Jerardo Elortzak Alustiza². Izan ere, hizlaria izatearekin batera, ikertzailea eta idazlea izan da gure fraidea bere bizitza luzean: euskaraz. Euskal herrietako bere apostolutza eta misio-lanetako ibilerak baliatu izan ditu herri-literaturako apurrak (bertsoak, kantak, ipuinak, herri-esaerak, zaharrak eta berriak) eta herritarren lanbideak eta ohiturak bilatzeko eta biltzeko, aipaturiko jakinmin-ikusminek eraginda. Iker-tzailearen landa-laneko horien ondorio ditu bere bi liburu etnografiko zoragarriak, hizkera xamurrez idatziak eta herri literaturako aipu ugariz hornituak: *Liboaren penak eta nekeak* (225 or.) eta *Euskal baserriaren inguruan*.

Idazle atsegina, landua eta herritarra aldi berean, ezagutu dugu Julian Alustiza kazetaritzako bere idazkietan. *Arantzazu* eta *Goiz-Argi* aldizkarietan idatzi ditu bere horrelako idazlan gehienak. Mota askotako gaiak erabili ditu horietan, honelatsu sailka daitezkeenak nolabait:

- Nafarroa: lurra eta historia, gertakariak eta ohiturak.
- Nekazari-ekonomia eta mundua: baserria, basoa, artzantza...
- Euskara eta euskal literatura, batez ere bertsolaritza eta bertsolariak; aipatzekoak dira bereziki hainbat euskarazko liburu argitaratu berrien aur-

kezpen kritikoak, batetik, eta *Goiz-Argi* aldizkarian argitaratu zuen "Kantu-kantari" izeneko artikulua (19 idazlan), bereziki bertso-munduari buruzkoa.

– Eliz gaiak: erlijiozkoak eta etikoak.

Kontalari trebe eta atsegina da Alustiza, bere sermoi-etako paraboletan nahiz bere idatzietako ipuin eta istorioetan. Beraren idazlanak, gogoeta- eta dotrina-gai elkorrenak ere, kontakizun eta istorio labur eta atseginez apainduak eta argituak aurkituko dituzu. *Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia*-n, euskararen gairekin batera –gai horretako orririk gehienak, azken urte askotakoak, Aztirirenak dituzu–, istorio eta ateraldiaren generoa landu izan du, bere izenik agertu gabe urte luzetan idatzi izan dituen orri txiki ugarran. Izan ere, sermolari serioaren barruan, irribarrea eta umore ona maite eta ageri duen gizona aurkituko duzu Julian Alustiza, beraren zahartzaroan are nabarmenagoa eta atsegina gertatzen zaizuna. Argitaratu gabeko bere idatzietan badu sortatxo bat, "Umorea nire bizitzan" titulupean jarria, hainbat ateraldi gozo eta istorio samurren bilduma polita³.

Alustizaren prosa-lan osoa bertsoz eta poema-zatiz josita ageri zaigu, nahiz eta horiek ez izan idatziaren zuzeneko gai. Badirudi ezin duela pentsatu, ez mintzatu edo idatzi, bertsoaren eta poesiaren gertu-gertuko laguntzarik gabe. Horrela, hitz lauz, eta arazo astunez edo kontakizun arruntez, ari zaizularik ere, giro poetiko bizira eramaten zaitu, zure irakurketa ere arinago bihurtuz.

Izan ere, Julian Alustiza poeta da, olerki-sortzaile... eta -idazle. "Arantzazuko poeten" artean jartzen du Bitoriano Gandiagak "Poesia eskola Arantzazu?" izeneko bere hitzaldian. Eta olerkaria izateaz gain, "poesia bizi duen gizona" dela ziurtatzen du. Hala ere, ez zaigu hain

ezaguna gertatzen gure fraidearen alderdi hori, berak idatzi eta jaso dituen olerkirik gehienek argitalpen apala izan dutelako edo publikatu gabe egon direlako. 1935ean argitaratu zuen bere lehen poesia, Arantzazuko Teologi ikastetxeko *Ensayo* barne-aldizkarian, 22 urte zituelarik –urte berean beste bi poema argitaratu zituen Zarauzko *Bandera Antoniana* aldizkarian bata, eta Donostiako egunkarietako batean bestea–. Urte horretakoa du beste zenbait olerki ere. Ondorengo urteetan beste dozena bat poesia argitaratu zituen *Ensayo* aldizkarian. *Aránzazu* aldizkarian argitaratu zituen hiru olerki 1936an. –1938an Alustizaren olerki batekin itxi zituen aldizkariak bere euskarazko orriak, martxoko zenbakian, gobernuaren debekuaren ondorioz. *Izotz* titulu adierazgarria zuen poemak. Debekuaren ondoriozko “izozte” luze eta gogorrenaren ondoren, 1945eko martxoan olerki berberarekin ireki zizkion aldizkariak euskarari bere orrialdeak–.

1936an Arantzazutik Gaztela aldera bizitzera aldatuta, olerkiak idazten jarraitu zuen aldika, urte ilun eta astun haietan bizitzeko “arnasa” hartu beharrean edo: Valladoliden, Zamorako Toro herrian edo Medina del Campo-n daude kokatuta horietako batzuk. Sei poema *Egan* aldizkariak argitaratu zizkion 1950eko lehen zenbakian (7-14 or.), Salvatore Mitxelenaren laudoriozko gomendio eta guzti; eta horietako pare bati Santi Onaindiak *Mila euskal olerki eder* liburu mardulean lekua eman zion.

1943an Euskal Herrira itzulita, Arantzazun daude datatuta haren ondorengo olerki gehienak, baina Euskal Herrian zehar egin ohi zituen ibilaldietatik atereak dira horietako batzuk; badu olerki bat Nafarroako Erriberari eskainia ere. *Aránzazu* aldizkariak berak argitaratu zizkion hiru poema, 1965. urtean.

1935-1942 urteetan idatzitako poesien liburuska xume bezain txukun eta xarmangarria –daktilografiatua– aurkitu dugu gure autorearen artxiboan: *Olerkiak*, 18 pieza. Autoreak berak egina digu bere olerki argitaratu eta argitaragabeen bilduma osoagoa, 1970. urterainokoa, urtez urte ordenatuta; 44 pieza ditu bilduak. –Ez daude bilduman *Ensayo* aldizkarian argitaraturikoak; eta, bestalde, 1992an idatzitako olerki txiki bat erantsi dio–.

Ez da kopuru handia, baina bai adierazgarria, gero ere ikusiko dugunez. Arantzazuko gure fraideak ez du olerkaritza ez bere lanbide eta ez bere bizibidetzat hartu; literaturan iharduteko astirik izan ez zuelako, besteak beste, gainerako eginkizunek hartuta. Seguruenik, bere apalean, ez luke bere burua olerkarien “kofradiakotzat” ere aitortuko; bai poesi zaletzat, ordea. Arnasa poetikoa barru-barruan eraman du beti, eta etengabe agertu izan du hori bere hitzaldi nahiz bere idatzietan. Idatzitako olerkiak barruko arnasaldiak ditu. “Arnasaldiak” diogu, zeren eta berak horrelaxe ikusten baititu Espainiako Gerra zibilaren osteko giro itogarri haietako bere eta beste euskal idazleen ahaleginak: “Hil zorian zegoen herriari ez ezik, geure buruari ere arnas eta itxaropen pixka bat eman nahi genion”: Bizinahiaeren arnasa...

Garai hartakoak ditu bildumako olerki gehienak, eta giro hartakoak, nahiz eta horietan ia inoiz ez agertu garaiko giro sozio-politikoaren oihartzun zuzenekorik. “... garai bihurri haietan, bakardadean eta ezkutuan egingdakoak ditut neure olerki edo delako hauek, eta Valladolid-ko desterruan gehienak gainera”, dio Julianek bere aurkezpenean.

Poeta lirikoa da Alustiza, “a la vez popular y refinado”, Joseba Intxaustik ondo dioenez¹. Ingurukoez ohartzeko begi zolia izan du Julian Alustizak. Izadiaren be-

hatzaile eta entzule bizkor eta aspergabea, atsegina eta atsedena hartu izan ditu horren miran eta doinuan –bere entzumena gehitxo gogortu zaion honetan, zera esan ohi du: Txoriak eskasten ari direla Arantzazun (!?)–. Izadiaren, mendien eta inguruaren ederraren aurrean bere barne-sentimendu fina eta bere euskara landua bateratuz, idatzi ditu Alustizak bere bizitzako olerki gehienak. –Erliziozko poesia, berriz, *Ensayo* aldizkarian emana edota Espainiako Gerra zibilaren aurrekoa du batez ere–. Hitz profetikorako lekua pulpitan aurkitu zuen; poesia, berriz, salaketa sozial edo politikorako baino gehiago, bizitzeko arnasbide eta ihesbidetzat hartu zuen gerraosteko urte haietan. Badu, hala ere, poesia sozialaren sailean sar daitekeen poemarik, 1937an idatzitako “Euskalerrinari”, adibidez. “Euskalerrri gaixoa! / Bere atzapar kakoa / Eriok dizu ezarri”, amaitzen du olerkia. Jakina, ez zuen orduan argitaratu, eta orain arte argitaratu gabe egon da. Gerraoste hartan, Euskal Herriak eta euskaldunek ezezik, inguruko herritarrek oro har bizi zituzten oinaze latz eta arazo larriak hurbildik eza gutzen zituen, jakina, herriz herri zebilen predikari eta misiolariak; baina alferrik hustuko zuen bere haserrea bakardadeko olerkitan, ondoren ahal zenik ezkutuenean gordetzekotan papera: “Ez pentsa gero berriketa zenik!”, dio Julian Alustizak, garai hartako giro astuna gogoratuz.

Salvatore Mitxelenak, bere aldetik eta Julian Alustizak ez zekielarik, horren zenbait olerki *Egan* aldizkarira bidaltzean idatziriko oharra aipatuz amaituko dugu honako sarreratxo bio-bibliografiko hau: “Izlaritzan maixu dan añaxe, euskal-olerkaritzan finfiña agertzen zaigu, zernaitarako ikusmen aundikoa, eta euskaltasun guzizkoa. Nunai billatzen daki poesi-muña, eta baitare poliki neurtitez aiderazten”⁵.

Oharrak

- ¹ *Euskera*, 1956, 284-285. "Ta, emen Arantzazun, lendabizi egin bear degun gauza auxe da nere iritzian, alegia: alkartu egin bear gerala euskaltzale guztiok: batu. Batasuna bear-bearrekoa degu, gaurko egun larrietan batez ere", zioen bere sermoi hartan.
- ² "Arantzazu eta Oñatiren arteko harremanak", in: *Arantzazu, Euskal Santutegi bat XX. Mendean*, Arantzazu E.F., 2001, 40. or.
- ³ Hor bildutako 'aleak' liburu honen azkenean eman ditugu: "Umorezko istorioak".
- ⁴ *Ibid.*, 148. or.
- ⁵ *Egan* (1950, 1) 7. or.

Paulo Agirrebaltzategi